



# Android STa eta ST Bonua sustapenaren baldintzak

ST Bonua\* sustapena lehen 12 hilabeteak kosturik gabe bezero berriak diren pertsona fisiko zein juridikoentzat, urtean 5 milioi euro azpitiko fakturazioa izanik Android ST bat (edo usadiozko ST bat edo ST birtual bat) 2024/04/30 baino lehen kontratatzen badute. Sustapenak modalitate hauetarako balio du: 6 bonua (mugikorreko ST Kobrantzarekin bakarrik), 10 bonua (ST fisiko edo birtualerako), 15 bonua (ST fisikorako bakarrik), 20 bonua (ST fisikorako bakarrik) eta 30 bonua (ST fisikorako bakarrik).

12 hilabetetatik aurrera, hileko tarifa bat kobratuko da aukeratu izan den bonuaren arabera, eta hau izango da horren zenbatekoa: 6 bonuarentzat, 6 € (mugikorreko ST Kobrantzarekin bakarrik); 10 bonuarentzat, 10 € (ST fisiko edo birtualerako); 15 bonuarentzat, 15 € (ST fisikorako bakarrik); 20 bonuarentzat, 20 € (ST fisikorako bakarrik); eta 30 bonuarentzat, 30 € (ST fisikorako bakarrik).

\* (ST Bonua tarifa lau bat da eta 12 hilabetez hileko kuota finko bat ordaintzean datza, urtero berritu daitekeelarik. Barne hartzen ditu STak Visa eta Mastercard txarteekin, B2B txartelak izan ezik, prozesatutako eragiketa guztien deskontua eta terminal baten mantentze-komisioa). Bigarren terminalerako eta hurrengoetarako, komisioa hilean 5 eurokoa izango da aktibo badago, eta 25 eurokoa ez badago aktibo, hau da, 2 hilabete igarotzen badira eragiketarik egin gabe. B2B txarteekin egindako eragiketei eta Visa eta Mastercard ez diren beste edozein txarteekin edo ordainketa-metodorekin egindako eragiketei, dagokien deskontuaren edo kostu finkoaren ehunekoa aplikatzen zaie.